



EXPO VÉRTIGO

ABENDUAK 2020



1. VÉRTIGO PROGRAMAREN AURKEZPENA

Vértigo programa Portugalete eta inguruko artista gazteentzako laguntza eta ahalduntze zerbitzu bat da, bere lan sektoreak sorrarazten duen bertigoari eta beldurrari elkarrekin aurre egiten ikasteko.

Vértigo programa artista gazteei bere obra erakusteko, euren sorkuntzei eragin soziala handitzeko, sektore kulturala hobeto ezagutu dezaten jakintzak hobetzeko eta profesionalizatu ahal izateko euren eskura duten baliabideak erakusteko aukera emango die

2. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdiaren helburua **gazteen ikuspegitik ziurgabetasun garai hauetan sentitzen dugun bertigo partekatua ikusaraztea da**. Horrela, artelan guztiek sentipen hori islatu beharko dute, artista bakoitzaren sentsibiltate propioa eta interpretazio askea aldarrikatuz..

3. ERAKUSKETA

Aukeratutako lanak artista gazteen talentua Portugaleteko toki enblematikoetan eta herrikodendetan erakutsiko duen **erakusketa kolektibo** baten parte izango dira.

Ekimen honen barruan, jasotako gainerako proposamenekin batera online erakusketa bat ere sortuko da.

Erakusketa abenduaren 2tik 29ra izango da ikusgai, bai fisikoki bai online.

3.1 OINARRIAK

- Parte hartzen duten artistek **14 eta 30 urte bitartean** izan behar dituzte.
- Pertsona bakoitzeko **obra bakarra aurkeztuko da**.
- **Arte-diziplina guztiak** onartuko dira.
- **Gaia:**
Bertigo = Interpretazio askea.
- Lanek **ez dute zertan erakusketarako berariaz eginak izan behar**, aurretik eginak izan daitezke.
- **Obra bati uko egiteko eskubidea gordetzen dugu**, hezkuntza mailan desagokitzat jotzen badugu.

Parte hartu nahi baduzu, **bidal** **iezaguzu mezu bat azaroaren 16a baino lehen** "Vértigo Deialdia + zure izena" gaiarekin, espacioartemisa@gmail.com helbidera, honako datu hauekin:

4.1 DATU PERTSONALAK

Izen-abizenak + Izen artistikoa (izanez gero)

Adina

Herria

Aurkezpen pertsonal laburra

Kontaktua: telefonoa + e-maila (datu horiek ez dira publiko egingo)

Sare sozialak, webgunea, ...

4.2 ZURE OBRA

Erakutsi beharreko obraren argazkia. Inprimatzeko kalitate nahikoa duen JPEG formatua (300 ppp).

Obraren azalpen laburra.

Azaroaren 19tik aurrera harremanetan jarriko gara guztiekin. Oraindik zalantzarik baduzu, kontsultatu gure web orria <https://www.espacioartemisa.org> edo bidali e-maila helbide honetara: espacioartemisa@gmail.com